

Julio Caro Baroja: In memoriam

Aldez edo moldez, Aldizkari urtetsu honen argitalpenarekin bat egiten dugunok albiste triste batek nahigabezko egoera ezin handiagoan murgilarazi gintuen, joan den abuztuaren 18ko goizaldean. Egun horretan Julio Caro Baroja jauna hil zen, bigarren aldia deitu dugunaren hasieratik (1983) gure zuzendari maitea izan dena, lagun eta maisu miretsia, eta Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkari honen orrietara bere entzute ona ekarri zuena.

Denon sentimena bilduz, esan dezakegu On Julio luxuzko zuzendaria izan dela guretzat. *RIE*veko bigarren ibilera honen lehen aleari eginiko hitzaurrean hemen ematea egoki derizkiogun ondoko kontsiderazioak egiten zituen:

RIEV sekula ez da dibulgazio aldizkaria izan ez eta *herrirakoa* ere. Zeren eta gure herrialdean baziren beste batzuk (eta oso onak, haietariko zenbait), premia hori betetzen zutenak, dibulgazio eta herrian zabaltzeko premia hori badelarik beti ere.

Hizkuntzari dagokionez, hona nire irizpidea. *RIEV nazioartekoa* izan zen hizkuntzaren ikuspuntutik. Jakina, euskal hizkuntzak, euskara, lehen eta agian gehienezko arreta erakartzen zuen. Garbi da, halaber, hartan antzinako euskal testu asko argitaratu zirela, bai eta lankide kopuru nabarmenak bertako hizkuntzan idatzi zuela. Beste batzuek, alabaina, gazteleraz idatzi zuten; eta zenbaitek, frantsesez, baita alemanez ere. (...). Goi mailako agerkari batek ildo horretatik jo behar du, nahiz eta, aitortu beharra dago, eleaniztasuna oso eroso ez den.

Bestalde, *Eusko Ikaskuntzak* etorkizunean *Eusko Ikaskuntzen* kontzeptua ere berrikusi beharko du (...). 1983n hemen kaleratzen hasten den aldizkari batek Ekonomia, Soziologia, Psikiatria, etab., bezalako disziplinen inguruko artikuluak biltzea, gure ustetan Hizkuntzalaritza, Antropologia eta Historiaurreko gai zaharrak lantzen jarraitzea bezain premiazkoa da.

Gure iritziz, aldizkari honek, bai eta azken finean *Eusko Ikaskuntzak* ere, gure mugen barrenean eta ezinbestean oker egindakoen artean, Zuzendari ospetsuak markaturiko orientabideei fidela izaten jarraitu eta haiei erantzuten saiatu da.


On Julioren maisutzaz eta adiskidetasunaz gozatzeko zoria izan dugunok Itzeako jakintsuaren nortasuna aberasten zuten giza kalitateak ezagutzen

ditugu; obra gaitzaren egilea da, gure mugen barruan eta kanpoan, denek aitortu eta errespetaturiko nagusitasunez burutua.

Topikotzat har badaiteke ere, esan dezagun Caro Baroja kulturaren alorrean, berau ikuspegi zabal eta oparo batetik begiratuta, ordezkaezineko pertsonaia izan genuen, disziplina jakin batean itxi eta sailkatzeko egin daitezkeen saio guztietatik saihesten dena. Hemen soilki gizon begiralearen eta pentsatzaile zorrotzaren izaera nabarmenduko dugu.

Atsekabeen idatziriko lerro hauetan, eta bizi zelarik gure Zuzendariak hartu zituen ezagutza ugari eta bidezko ez abstrakzio eginik, ez ditugu ahaztuko Eusko Ikaskuntzak haren lan estimagaitzaren esker-erakutsi gisa eskaini zizkion RIEVeko bi aleak.

Julio Caro Baroja jaunak, eta haren eredu zko lan ongi eginak, bizirik iraungo dute Aldizkari hau egiten dugun guztien oroitzapenean. Haren familiari, anaiarteko maitasun frogatuzko jokabidea erakutsi duenari, gure dolu minik bizienak helarazi nahi dizkiogu.



Julio Caro Baroja: In memoriam / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. - Donostia : Eusko Ikaskuntza. - T. XL, 2 (1995), p. 265-268